

# FCEE-EIKFen Lehen Biltzar Nagusia

(Bilbo, 2005eko azaroak 17, 18)

Imanol IGEREGI

GEZKik azaroko Biltzar Nagusiaren inguruko gogoeta egiteko gonbidapena egin digu. Hasi baino lehenago eskerrak adierazi nahi dizkiogu orrialde hauetan geurea bezalako erakundeari tokia egiteagatik. Ondorengo orrialdeetan irakaskuntzako euskal kooperatiben asmo eta helburuen berri ematen ahaleginduko gara.

Datozen lerroetan, hiru galdera nagusiei erantzuten saiatuko gara:

- **Nortzuk gara?** Segur aski zuetariko askorentzat ezezagunak izango gara. Euskal Herrian kooperatiba hitza aipatzen dugun bakoitzean Arrasaterako bidaia sinbolikoa egiten dugu, sektore batzuetan Euskal Herriko kooperatibismoak esperientzia zabal eta anitzagoa dela ahaztuz.
- **Zergatik edo zertarako egin genuen Biltzar Nagusia?** Kooperatibetan ez da bat ere ohikoa honelako ekitaldia. Urtero Asanblada Orokorra egiten da, Batzar edo bilera desberdinak, formazio-ekimenak, lau urtero kooperatiben Artezkaritza Kontseiluak kooperatibista guztien artean hautatu edo/eta beritu egiten da, ... Zergatik Biltzar Nagusia?
- **Zein izan zen Biltzarraren edukia?** Zeintzuk Federazioaren eta irakaskuntzako euskal kooperatiben ildo eta gogoeta nagusiak datozen urteetarako?

## I. Nortzuk gara, euskal irakaskuntza-kooperatiben ezaugarriak

Orain hamabost urte abiatu ginenean 57 kooperatiba, 27.000 guraso eta 2.257 langile (lan-bazkideak eta bestelakoak) biltzen genituen. 1993.urtean ikastola-kooperatibek bizi izan zuten prozesuaren ondorioz (sare publikora biltzeko aukera, hain zuzen ere), 36 kooperatiba baino ez ziren Federazioan mantendu.

Gaur egun, aldiz, Federazio honek 75 kooperatiba biltzen ditu, 49.897 ikasle daude irakaskuntza arautuko ikastetxeetan eta 7.000 gehiago hiz-

kuntza-akademia eta euskaltegietan, 46.620 guraso bazkide, 1.755 laneko bazkide, 4.920 langile irakasle eta ez irakasle, 87 milioi euro urteko fakturazioarekin. Azken hiru urteetan bazkide kopurua %20an hazi egin da (datu hauek 2005eko azarokoak dira, gaur egun 77 kooperatiba biltzen dira gure Federazioan). Kooperatibok sare kontzertatuan kokatzen gara.

Zein errealitate dago zenbaki hauen atzean? EAEko irakaskuntza 3-16 urte bitartean ikastetxe publiko-kontzertatu banaketan bi zati berdintsuetan antolatzen da (%52 kontzertatua eta %48 publikoa). Sare kontzertatuaren %35-a gutxi gora behera kooperatibok ordezkatzeko dugu, 3-6 zikloan %45tik gorako portzentaia bilduz. Beraz, euskal kooperatibok irakaskuntza-sistemaren zati esanguratsua gara, gure eragina gora doa eta, harrokeriarik gabe, epe laburrean indartsuagoa izan daitekeelakoan gaude.

**Hizkuntza-ereduei dagokienez**, aniztasuna adierazten dugu. 3-18 tartea aztergai hartzen badugu, ondorengo errealitatea azaltzen dugu:

- A ereduan ikaslegoaren %9,95-a eskolaturik dago.
- B ereduan ikaslegoaren %13,88-a
- D ereduan, aldiz, ikaslegoaren %76,16-a

Beraz, euskal ereduak dira nagusi gure artean ez bairik gabe, joera hau Haur Hezkuntzan sendotu egiten delarik.

Federazioari loturiko 50 kooperatiba baino gehiago **kalitate-kudeaketan eskarmentu handia** dute. Esate baterako, EFQM ereduan kooperatiba batek europar aipamena eskuratu du, urrezko 3 Q sari eta 19 zilarrezko-dun kooperatiba daude, ISO arloko 5 ziurtagiri eta hainbat kooperatiben aldetik lan serio eta etengabea aurkezten dugu. Hemendik gutxira lortu beharreko aipamen-kopurua askoz zabalagoa izango denaz zalantza-izpirik ere ez dugu. Kalitate-esparruaren barruan ikasleen emaitzak ere ager ginitzake, dudarik gabe sisteman ematen diren hobereenen parekoak baitira, baina helburua ez da inolaz ere gure burua nabarmentzea, datuok adierazle gisa aurkezten ditugu.

Baina, batez ere batzen gaituen ezaugarri nagusia gure **izaera kooperatiboa** dugu: gurasoen kooperatibak, langileenak edo/eta bateratzaileak, era desberdinetako kooperatibak baitaude gure baitan, Ezaugarri honek batu eta lagundu egiten digu gure elkarbizitza eta geroa antolatzen, honen barruan gure herriaren eta gure **Federazioaren aniztasuna eta pluraltasuna** aldarrikatzen baititugu. Aniztasuna eta pluraltasun hauek baloretzat hartzen ditugu, guretzat eta gure herriarentzat.

**Izaera kooperatibari erabateko garrantzia ematen diogu**, gure ikurra da. Honen bitartez kooperatiba bakoitza osatzen dugun eragileen protagonismoa azpimarratzen dugu. Honetan egungo irakaskuntza publiko eta pribatutik erabat bereizten gara. Gurasoak eta langileak ez dira bakarrik gure bezeroak, jabeak dira, kooperatibaren jardunean eragile aktiboak, ez

dira inoren menpekoak (Administrazioa edo titular pribatua), inplikatu ahal dira zeregin guztietan, bizitza sozietarioan parte hartu eta erabaki ditzaizkete gai garrantzitsu guztiak. Geuk ez dugu bakarrik hezkuntza-komunitatearen partaidetza sustatzen, baizik eta bere erabakitze-ahalmena garatu nahi dugu gure proiektuetan. Nazioarteko ikerketa guztietan agertu bezala, irakaskuntza arrakastatsua gako nagusienetakoa hezkuntza-komunitatearen inplikazioan datza. Kooperatibetan abantaila nabarmena dugu atal honetan.

Bestalde, dagoeneko Federazioan biltzen diren 47 kooperatibek **herri onurako izendapena** lorturik dute eta epe laburrean gutxienez 9 gehiagok eskuratuko dute, honek **gure izaera soziala** azpimarratzen duelarik. Zer esan nahi du herri onurako izendapena eskuratzek? EAEko Gobernuko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren 64/1999 Dekretua hartzen badugu (herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzeko dena), herri onurako kooperatiba batek jarraiko betekizunak bete behar ditu:

- ezin du irabazi asmorik izango.
- ekitaldi batean emaita positiborik sortuz gero, onurak ezin dira bazkideen artean banatu.
- sozietatearen kapitalean eginiko ekarpenek ez dute diruaren legezko korriturik gorako interesik sortzerik izango.
- Artezkaritza-Kontseiluko karguak dohainik beteko dira.
- langile bazkideen edo kooperatibako langileen ordainketek ez dute gainditzerik izango sektoreko soldatadun langileei aplikatzen zaien hitzarmen kolektiboak lanbideko kategoria eta jardueraren arabera ezartzen dituen ordainketen ehuneko berrogeita hamarra.

Honekin batera, **kooperatiba baten ondareak** beste ezaugarria dauka, orokorrean ezezaguna dena, hots, likidazio-prozesua emanez gero, kooperatibari dagozkion zor guztiak ordaindu ondoren, gainontzekoa EAEko erakunde publikoen esku gelditzen da, gure kasuan Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku, herri-erakundea hain zuzen ere.

Honaino gure datu eta ezaugarri nagusiak. Oraindik aurrera, beste galdereri erantzungo diegu

## II. Zergatik edo zertarako egin Biltzar Nagusia?

Artikulu honen sarreran adierazi bezala, Biltzarra ez da ohiko tresna kooperatiben mugimenduan. Zergatik orduan Biltzar Nagusia? Laburbilduz, hiru arrazoi nagusitu ziren ekimen hau antolatzeko:

1. **Federazioaren barne-dinamika.** Lehen galderari erantzuten, irakaskuntza-kooperatiba goruntz doan errealitate gisa marraztu egin dugu. Bide honetan 2004-07 Plan Estrategikoa ondorengo gogoeta egiten genuen:

*«Dena den, iruditzen zaigu iritsi dela unea salto berri bat aurrera egiteko. Aipaturiko 2004-2007 Plan Estrategikoan, lehenengo helburu estrategiko hau planteatzen genuen: «FCEE-EIKF euskal hezkuntza-mugimendu kooperatiboaren erreferentziazko egitura gisa sendotu behar da, pixkanaka ITUNPEKO HEZKUNTZA-ARLOAREN erreferentziazko erakunde bihurtzeko helburuarekin».*

*Horren haritik, Federazioa itunpeko hezkuntza-arloaren erakunde erreferente izateko egoeran jarri nahi badugu, **premiazkoa da intentsitate handiagoz ikusaraztea bere hezkuntza- eta antolaketa-ekintza, kontuan izanda informazioaren eta komunikazioaren gizarte honetan komunikabideetan agertzen ez dena ez dela existitzen, eta hori ez «produktua saltzeko», baizik eta alternatibak erakusteko, hezkuntza-sistemaren funtzionamendua hobetzeko, parte-hartze, solidaritate, zuzentasun eta gizarte-konpromisoaren balioak sustatuz.***

*Biltzarra **barne-kohesioko elementu bihurtu nahi badugu, kanpoko egoerari erantzun beharko diogu eta, aldi berean, zera lortu behar dugu: Biltzarrak Federazioaren 15 urteko ibilbidea laburbiltzea, egungo errealitatea lan iraunkor baten emaitza baita, eta ibilbide baten erakusgarri, inolako protagonismorik gabe».***

Hau 2004ko hausnarketa, Kongresurako bidean jarri gintuena.

2. Aldi berean, **ezin dugu ahaztu zein une edo koiunturatan** egin den, egoera garrantzitsua izango baita bi aldeetatik:

- LOEren onarpena eta araudi-garapena bidean: Autonomia Erkidegoetako gobernuak, gure kasuan Eusko Jaurlaritza, Lege honen garapena egiten ariko dira (curriculum-aren egokitzapena, ikastetxeen gutxieneko betebeharrak ezartzea, ebaluazio-irizpideak, etab.)
- Euskal hauteskundeak egin ondoren, Jaurlaritza Berria —eta bere barruan Hezkuntza Sailaren talde berria— lehen urratsak egiten ariko da. Urratsok aipagai ditugula, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren eta hiruko Gobernuaren lehen konpromisoa hezkuntza esparruan, ez unibertsitarioa den Hezkuntza alorreko Lege berria, egungo lege-errealitateak 1992an sinatu eta gaur egun agorturik dagoen hezkuntza-paktu edo hitzarmen batean jatorria baitu. Abagunea ez zen edonolakoa.

Egoera honetan lehenengo Biltzar Nagusia egin nahi dugu, eta aurrerantzean lau urtean behin errepikatu, euskal gizartearekiko konpromiso be-

zala, betiere Plan Estrategikoa egin ondoren, gure jarduera antolatuaren azterketatik ateratzen diren ondorioei erantzunez.

Beraz, bi ildo nagusi: barneko dinamikaren bilakaera eta abagune berrian gure aukera eta konpromisoak iragarri eta aldarrikatzea. Kongresuaren hasierako ekitaldian hitzez hitz ondorengoa esaten genuen: *«Ekitaldi xume honen bitartez, Guztion artean lelopean, Federazioak bere Lehen Biltzar Nagusiari hasiera eman nahi dio. Hamabost urteko sintesi gisa planteatzen dugu (oraindik erakunde gaztea da gurea), indarrak biltzeko eta hezkuntza-arloko euskal kooperatibismoaren diseinu eguneratua egiteko balio-garria izan baita. Halaber, etorkizunari begira, euskal kooperatiba mugimenduaren sektore honen urrats garrantzitsua delakoan gaude.»*

### III. Zein izan zen Biltzarraren edukia?

Euskal Herriko irakaskuntza sistemen **diagnosisia** (espainiar estatuaren sistemaren testuinguruan) egiten genuen, gure proposamenak aurkeztu baino lehenago. Diagnosi horren zertzelada batzuk azpimarratuz gero, honako hauek aipatzen genituen gure agirietan:

1. Edozein eratako hezkuntza-politikek, aldaketa pedagogikoek, eraginkorrak izateko, aplikazio-aldi luzea eskatzen dute (pentsa dezagun 2 urterekin ikastetxe batean eskolatzen den ikasleak 16 urterekin bukatuko duela eskolatzeko-prozesua, eta aldi hori guztia beharko duela bere derrigorrezko prestakuntza-prozesua osatzeko). Halaber, ikasleak, eskolan sartutako neska-mutikoak, material delikatuuegia dira berez, eta horrek sustatzaileen protagonismoak bakarrik eragindako aldaketak saihestera eramane beharko lituzke gure hezkuntza-politikaren arduradunak. **Hezkuntza-politika eta sistemaren antolamendua**, aldiz, **ez dira bat ere egonkorrak izan azken 30 urteetan**.
2. Etorkizunera begira, **euskal komunitateak hezkuntzan egin dezake bere inbertsiorik onena**, eta inolako zalantzarik gabe **ardatz estrategiko** horren inguruan ibiliko da neurri batean, Euskal Herriaren etorkizuna, herrialde gisa.
3. 1992ko Eskola Itunerako Akordio politikoak, azken urteotako hezkuntza-politikaren euskarriak, proposatu zuen antolaketa-eredua gainditu egin dute hezkuntza-eragileen gizarte-dinamismoak eta teknologiaren eta informazioaren gizarte berriaren hasieran aurkeztu zaizkigun erronka berriek. **Akordio edo Itun berria** egin behar da euskal hezkuntza-arloko eragile politiko eta sozial guztien artean, eta horrek legetan zehaztapen korrelatiboa izan behar du (Euskal Eskolaren Lege edo/eta Finantzaketa Lege moduan).

4. Aurreko gogoeta horiez gain, uste dugu gure gizarteak jasandako gizarte-, ekonomia- eta kultur aldaketek eta derrigorrezko hezkuntza 16 urte arte luzatzeak eragindako egoerak **erronka berriak eta eskakizun handiagoak planteatzen dituzte, eta beharrezkoa da horiei erantzutea hezkuntzaren kalitatea hobetzeko.**
5. **Aldaketa horietako batzuk nabariak dira** eta hezkuntza-sistemaren bilakaeraz kanpo dauden egoeretatik abiatzen dira, nahiz eta eragin ukaezina izan bertan. Batzuk aipatzearren, honelako fenomenoez ari gara:
  - **Emigrazioa:** oraindik neurri apalak ditu EAEn, baina pixkanaka gero eta handiagoa izango da ondorengo urteotan (oraindik nekez aurreikus daitezkeen hezkuntza- eta gizarte-ondorioekin).
  - **Europako Ekonomia Erkidegoan sartzea:** eta hau ari da dagoneko hezkuntza-ondorioak izaten, 2000. urteko Lisboako akordioan eta 2010. urterako Europako agendaren aplikaziotik eratorriak, besteak beste. Hezkuntza-ekintzaren «europar dimentsioa», gaur euskal hezkuntza-sisteman sartzen diren ikasleek Europan izango duten lan-mugikortasuna ezin saihestuzko zerbait da sistema horren egungo eta etorkizuneko antolaketarako.
  - edota **prozesu politikoekin loturiko beste batzuk, gure Herriaren etorkizunerako eragin handikoak.**
6. **Euskal hezkuntza-sistemaren eraketa eta antolaketari** buruzko edozein proposamenek bi helburu hauek izan behar ditu kontuan: sistemari egonkortasuna ematea eta kalitatea gero eta gehiago hobetzea, azken hau gizarte-kohesio eta zuzentasun gisa ere ulertuta, sistemak oro har ahalik eta baldintzarik onenetan erantzun ahal izan diezaien etorkizun hurbilean planteaturik dituen erronkei.
  - Sistemaz hitz egitean, bere ikastetxeetako bakoitzaren egoera eta praktikak ere kontuan hartzen ari gara. Puntu honetan, beste gogoeta-elementu bat sartu nahi dugu: uste dugu euskal hezkuntza-sistema zentralizatuegia dela, bere aplikazioan curriculum-izaera duten erabakiak, aniztasunaren tratamenduari buruzko planteamenduak edo zenbait hobekuntza-plan sartzea «Lakuako erabakien» mende daudela gehiegi. Ikastetxeei erabakitzekeo gaitasun gutxi uzten zaie, «*gehiegizko zaintza*» *dute beren gain*. Hori horrela bada itunpeko ikastetxeetan, errealitate hori are nabarmenagoa da titularitate publiko-administratiboa dutenetan (nahiz eta horien egoera ez izan hausnarketa honen helburu).
  - Bestalde, hezkuntza-sistemaren eta bere ikastetxeen (horien artean euskal irakaskuntzako kooperatiben) kanpo-ebaluazioaren

datuek (PISA proiektuan zeuden probetatik, edo TIMSS probetatik ateratakoek edo nahitaezko hezkuntza-prozesua bukatzean gure ikasleek euskaraz duten hizkuntz gaitasunari buruzkoek), baita ikasleen arteko bortizkeria-kasuek ere, garbi erakusten dute hobekuntza-arloak badaudela, eta guztiok, beharrezko bitartekoekin, horretan saiatu behar dugula, inolako zalantzarik gabe.

Gure aldetik diagnosian aurkituriko hobekuntza-aukerari erantzun egokia eman nahian **ondorengo irizpideak eta ildoak** adierazi genituen Biltzarran:

1. **Gizarte-integrazioa eta kohesioa** bultzatzea, zuzentasuna eta era guztietako ikasleen konpentsazio- eta integrazio-aldagaiak indartuz, bereizketa guztietatik ihes eginez; horretarako ezinbestekoa iruditzen zaigu erakunde autonomikoen, probintzialen eta, batez ere, udalen zehar-jarduna, azken horiek baitaude herritar guztiengandik hurbilen, zuzen-zuzenean esku hartzeko moduan. Gure aldetik **Federazioa eta bertan biltzen diren ikastetxeon inplikazio handiagoa** eskatzen genion gure buruari, bide horretan ahalegin eta lan handiagoa egiteko prest agertuz.
2. Geure identitatearen osagai den titularitate sozialarekin bat etorritz, **gizarte zibilaren zuzeneko parte-hartzea**, hau da, hezkuntza-elkar-tea osatzen duten estamentu guztien ordezkarien parte-hartze zuzena eskolaren (hezkuntza-sistemaren) titulartasunean eta antolaketan, erantzukizun eta eraginkortasun handiagoa horren hobekuntza eta kudeaketan ipiniz; alde bietatik eratorritako emaitza hobeak lortuko direlarik. Gure aldetik, iruditzen zaigu kooperatiba-titulartate delako horretarako eskura dugun tresnarik onenetarikoa.
3. **Eskola-autonomia** handiagorantz abiatzea, gure eskola eredu ikastetxean eta ikastetxeen autonomian oinarritzen baita. Inguru geografikoari, sozialari eta ikasleen ezaugarriei erantzun egokia eman nahi badiegu, ikastetxeen autonomia ezinbesteko baldintza da. Izan ere, hezkuntza-arazoei hurbil-hurbiletik konponbideak emateko, hezkuntza-komunitatearen parte hartzea bermatzeko eta, azken batean, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko funtsezko baliabidea eta bermea baita, inolako zalantzarik gabe. Honek ez du mugatzen ikastetxeen arteko elkarlana; aitzitik, proiektu berdintsuak edota inguru berekoak diren ikastetxeek sareak egiteko ezinbesteko aukera eta erronka izango dituzte datozen urteetan.
4. **Baliabide publiko gehiago** horretara zuzentzea, gure Barne Produktu Gordinaren %6 gutxienez. Hezkuntzan egindako inbertsioa gizarte-eraldaketaren eta garapenaren eragile bihurtzen da, eta «au-

kera-berdintasunerako» baldintza. Aldi berean, **baliabide horien kudeaketa eraginkorrago eta gardenagoa aldarrikatu behar dugu**, biak, baliabideak eta horien kudeaketa eraginkorra, ezin banatuzko moduan baitaude elkartuta. Baliabide gehiagorik gabe, gizarte kohesioa helburu gisa ur errean geldituko da. Adibidez, kooperatiba baten kostea Administrazioak ez badu erabat estaltzen, ezin da bermatu bazterkeriarik gabeko ikasleen eskolaketa, kuotak ezarri behar harko baitira.

5. **Eskolako jardunaren gizarte-kontrola eta ebaluazioa.** Erantzukizunez eta gardentasunez jokatu nahi badugu, autonomia eta gizarte-kontrola errealitate banaezin bihurtzen dira. Euskal gizarteak esku-bidea du eskolari ematen dizkion baliabideen kudeaketari eta horiekin lortzen diren emaitzei buruzko informazioa jasotzeko (eraginkortasunez erabiltzen ote diren jakiteko). Ebaluazioa hobekuntzaren oinarri eta ganga nagusia da.
6. **Askotan errepikatu dugun formula erabiliz, herri baliabidez hornituriko ikastetxe guztion betekizun eta baliabide-maila berdina aldarrikatu** genuen, gure ustez, horixe baita sistemaren hobekuntza eta funtzionamendu egokirako biderik onena. Laburtzarren, datozen urteetako hezkuntza-sistemaren helburu nagusienetakoa korapilo baten askatzean datza: sistemaren dualizazioa saihestu eta horretarako behar beste baliabide helburu honen baitan erabili. Horretarako gizarte-talde eta erakundeok gure partehartze aktiboa azaldu behar dugu.

Orain arte adierazitakoaz gain, irizpide edo kudeaketa-ildoak ez izan arren, **irakaslegoaren hasierako formazioa** beste era batera antola dadin beharrezko gestioak egin ditzan eskatzen diogu Sailburuari. Orain duela gutxi, gure kooperatibetako arduradun-talde handi batek Finlandiako ikastetxeak eta Pedagogia-Fakultatea bisitatu ditu. Aipatu hasierako formazioan alde izugarria dago (inolaz ere, irakasleen ardura edo erantzukizuna, formazioa Unibertsitatearen zeregina baita), eta, gure uste apalean, PISA ebaluazioaren aldea azaltzeko baliagarria da. Gure aldetik, irakaslegoaren hasierako formaziorako Bolognako proposamenen egokitzapena egiteko garaian aukera berria dagoelakoan gaude.

Aurreko atalei dagozkien neurri eta proposamen zehatzak aurkeztu eta eztabaidatu genituen Biltzarran, hantxe erabilitako materiala gure web orrian edonork aurki dezakeelarik.

Une honetara iritsita, 75 kooperatiba garela berresten genuen, hezkuntza eta elkarte-proposamen anitzekoak, lan egiteko era eta jokamolde bereziak dituztenak, ziur aski, gerora begira, proiektu eta xehetasun desberdinak agertzen dituztenak. Gure irakaskuntza kooperatibek izaera sozial nabarmena dute, erabakietan bazkideek (familiek edota langileek) duten

parte-hartzeak eta kontrolak erakusten duen bezala, baita ikasle guztiei eta haien familiei, inolako bereizketarik gabe, hezkuntza erantzun integratzailea, kalitatezkoa eta eraginkorra emateko borondate irmoak ere. Halaber, aktiboki lagundu nahi dugu hizkuntz eta kultur normalizazioan, helburu hauekin bat datozen bere hezkuntza-proiektuen bidez. Izan ere, **Curriculum**-eredu bat, geure Herritik egina, geure inguruneko gizarte- eta hezkuntza-errealitateetara irekia, integrazio eta berrikuntza-irizpideak garatuko dituen, bere inguruneari lotua eta **adostutako euskal identitatearen garapenean konprometitua** aldarrikatzen ditugu.

Honekin batera eskaintza eta eskaria jartzen genituen mahaiaren gainean:

- Eskaintza:** gure burua eskaintzen diogu Euskal Administrazioari goian aurkeztu ditugun hezkuntza eta kudeaketa-eredu berriak ikertu, esperimentatu eta ebalua ditzan. Honen bitartez, hezkuntza sistemaren hobekuntza dudarik gane abian ipiniko du.
- Eskaria:** gure kooperatiba-izaeraren aitortza eskatzen diogu Euskal Administrazioari, egiten dugun ekarpenak merezi duelakoan bai-kaude.

Laburbilduz, **kalitatezko euskal hezkuntza inklusiboa aldarrikatzen dugu, gizarteak eta erakundeek definituriko helburuen eta ezaugarrien arabera antolatua. Beste edozein ikastetxe edo ikastetxe-talderen pareko beharrianak geureganatzeko prest agertzen gara, beti ere ardua eta erantzukizun horiei behar bezala erantzuteko adina baliabide eta errekurso eskuratuta.**

\* \* \*

Gure gogoetaren koordenada nagusiak hauexek izanik, Kongresuaren zereginak hauen arabera antolatu genituen:

- Bi adituen ekarpena:
  - P. M. Etxenike jaunarena: Zientzia, Sormena eta Hezkuntza
  - Alvaro Marchesirena: XXI.mendeko ikastetxearen ezaugarriak eta zereginak hezkuntza eta ikastetxeen zeregina kokatuz.
- Barne-eztabaidak:
  - Aurreko planteamenduak biltzen zituen Agiria edo Ponentzia
  - Hezkuntza kooperatibok gizarte-kohesioari egiten diogun ekarpena, EHU-UPVren Pedagogia-Fakultateko irakasle batzuen laguntzaz
  - Kooperatiben kostoen azterketa
  - Kalitatear buruzko gogoeta, Euskalit, AENOR eta Deustuko Unibertsitateko HEZlko aditu desberdinen partaidetzaz.

Bertan gorago adierazitako ildoak sakontasunez aztertzen dira, datu zehatzak eta proposamenak eginez: gizarte kohesioa, ikastetxe eta sitemaren finantziazioa eta kalitatea. Aipatu ditudan datu, xehetasun, ekarpen eta potentzia guztiak gure web orrian esku dituzue: [www.fcee-eikf.coop](http://www.fcee-eikf.coop).

- Hauekin batera, protokolorako ekintzak eta Federazioaren lehen Artezkari-tza-Batzordea osatu zuten kooperatibentzako omenaldia. Ez dugu ahaztu nahi Kongresua antolatzeke izan dugun Ekonomia-Sozialeko zuzendaritzaren laguntza eta Hezkuntza eta Justizia Sailburuen partaidetza Kongresuan bertan.
- Partidu, sindikatu eta sozial-eragile desberdinen partaidetza ere nabarmendu nahi dugu: Ez dugu laburpena bukatu nahi Biltzar Nagusian egon zirenen zerrenda aipatu gabe:
  - Hezkuntzako eragileak:
    - Euskal Herria: Partaide, EIB, Kristau Eskola, Bizkaiko Elizbarrutiko Ikastetxeak, AIC, Hetel, Federación AyB, EHIGE.
    - Espainiar Estatu: UECOE eta autonomia desberdinetako kooperatiben Federazioak
  - Kooperatiben Mugimendua: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.
  - Partiduak: EAJ-PNV, PSE-EE (PSOE), PP, EA, Aralar, IU-EB. Ezker Abertzalea talde parlamentarioak bere etorri ezina adierazi zuen.
  - Sindikatuak: LAB, ELA, CC.OO, STEE-EILAS, FETE-UGT.
  - EHU-UPV, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea gure artean izan genituen.
  - Halaber, ezin ditugu ahaztu 72 kooperatibetatik etorritako 146 ordezkariak Guztira, 200 bat lagun

\* \* \*

Biltzar Nagusiaren sarreran azaltzen genuen agurrarekin amaituko dugu. Hitzez hitz ondorengo agurra luzatzen genien partaideei: *«Acabamos esta Introducción. Nos reafirmamos en el reconocimiento de la pluralidad de Euskal Herria y de sus sistemas educativos. Cada uno de nosotros es el presente y el futuro del otro. Denok gaude inplikaturik hausnarketa honetan, bertan gauden eragile sozial eta politiko guztiok, eta ez daudenak ere. Beste ezadostasun batzuen gainera akordio-bideak jorratzeari komenigarri deritzogu. Gure aldetik, bide honetan indar guztiaz lan egiteko jarrera adierazten dugu. Besteengandik antzerako jarrera espero dugu. **Guztion artean** ahalegin emankorra izan daiteke. Eskerrik asko»*. Egun baliogarria izaten jarraitzen duela uste dugu.